HOBE BAKARRIK

Askoren ustez, gizaki bat beren bizitzen parte egitea esperientziarik ase betegarriena eta aberasgarriena da. Alabaina, ez da edonolako kontua, are gutxiago bidea norberak bere kabuz bete behar duenean. Haurrak hazteko ardura nahikoa ez balitz, guraso bakarreko familiek gizartearen intolerantziari eta eskuzabaltasun gutxiko legediari aurre egin behar diote.

Baina erdal esaera batek adierazten duen bezala, "konpainia txarrean egon baino hobe da bakarrik izatea". Izan ere, familiarik tradizionalenak ere ez daude hausturatik salbu, eta Rosetarren estiloko borrokari bide egin diezaiokete. Hutsalkeriak alde batera utzita, egiazki dibortzioa gai latza da eta inplikaturiko alde guztiei sufrimendu handia eragiten die, nahiz eta indarkeria egoerak bizi izan dituzten familientzat salbaziorako aukera izan baden. Banaketa gatazkatsu hauetan, familia epaitegietan, Guraso Alienazio Sindromea (SAP) erabili ohi dute froga gisa. Osasuneko Munduko Erakundeak eta psikiatria arloko hainbat profesionalek eredu kliniko horren kontra agertu badira ere, abokatuek hura erabiltzen jarraitzen dute emakumeak seme-alabek tratu txarren eragile den aitari dioten ezinikusiaren errudun bihurtzeko. Dena dela, adin gutxikoak ez lirateke inoiz elkar erasotzeko arma gisa erabili behar.

Urte berri ona izan dezazuela.

SOLEDAD JÁCOME BRAVO

"MEJOR SOLA..."

Para muchas personas traer una criatura a sus vidas es la experiencia más gratificante y enriquecedora que existe. Sin embargo, esta aventura no es fácil, menos aún cuando el camino hay que recorrerlo en solitario. Además de cubrir en soledad todas las responsabilidades propias de la crianza, muchos de estos núcleos monoparentales se ven expuestos a una sociedad todavía intolerante y a una legislación poco generosa.

Pero como dice el refrán, "mejor sola que mal acompañada". Y es que hasta las familias más tradicionales pueden romperse y desembocar en guerras al más puro estilo de la de los Roses. Y dejando de frivolizar, el divorcio es un duro trago

y produce un gran sufrimiento a todas las partes, aunque también puede ser una tabla de salvación para familias que han vivido situaciones de violencia. En estas separaciones altamente conflictivas se suele utilizar como elemento de prueba pericial en los juzgados de familia el Síndrome de Alienación Parental (SAP). Aunque la Organización Mundial de la Salud así como varios profesionales de la psiquiatría rechazan abiertamente la existencia de este cuadro clínico, sigue siendo utilizado por los letrados para culpar a las mujeres del rechazo que sienten los hijos e hijas hacia el padre maltratador. En cualquier caso, los menores nunca deberían ser utilizados como arma arrojadiza.

Feliz año para todas y todos.

SOLEDAD JÁCOME BRAVO